



Soziolinguistika albistaria

26. zenbakia
2017ko azaroak 17 – azaroak 30

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

"Arnasguneak eta udalerrri euskaldunak" jardunaldia izan zen azaroaren 22an: kronika

Donostian, EHUren Carlos Santamaria Zentroan egin da "Arnasguneak eta udalerrri euskaldunak: gaurko eta biharko erronkak" jardunaldia, UEMAk eta Soziolinguistika Klusterrak elkarlanean antolatuta. Bertan bildutako euskara teknikariek, udal ordezkariek, ikerlariek ...

- [#erronkak jardunaldia hedabideetan](#)

Arabako Erabileraren Kale Neurketaren emaitzak aurkeztu dira Jagon jardunaldian

Azaroaren 17an Euskararen Etxean (Gasteizen) egin da Jagon Jardunaldiaren XXII. edizioa, Euskaltzaindiak antolatuta. Aurtengoaren izenburua " Araba, euskaraz bidea egiten" izan da. Besteak beste, Soziolinguistika Klusterreko Olatz Altunak parte hartu du testuinguru s...

Ikerketak

[Bi master amaierako lanentzat laguntza, gazteak eta hizkuntzen inguruan ikertzeko](#)

(Eusko Ikaskuntza)Badakigu Master Amaierako bi proiektu irabazleen egileak nortzuk diren.Libe Alvarez Irugeunpagate eta Joseba Fernandez de Landa izan dira bi dirulaguntzen onuradunak.

[Irlandako Errepublikako 2016ko hizkuntza-gaitasuna eta erabilerari buruzko zentsuko datuak argitaratu dituzte](#)

(An Phríomh-Oifig Staidrimh - Central Statistics Office) The Central Statistics Office (CSO) today (Thursday 23rd November) publishes the penultimate Census 2016 report, Profile 10 - Education, Skills and the Irish Language. This publication presents details on t...

[Quebec-en frantsesak lan-munduan duen egoerari buruzko ikerketa publikoa aurkeztu da](#)

(Office québécois de la langue française) Ce document est le premier d'une série de fascicules qui seront publiés avec les données de l'enquête Langue publique au Québec en 2016. Il porte plus précisément sur l'usage général du ...

Jardunaldiak, hitzaldiak eta ikastaroak

[Urteko irakurketa eta ondorioen txostena aurkeztu du Kontseiluak](#)

(Kontseilua) Aurkezpena Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak 50 eragile baino gehiagoren aurrean.. Kontseiluak 2017ak euskararen normalizazioan zer eman duen eta, horretan oinarrituta, hurrengo urterako erronka nagusiak aurkeztu ditu. Horrela, Kontseiluko ordezk...

[Linguapax-en 30 urteurrena: bi jardunaldi eta sari-ematea](#)

(Racó Català) Com més vitalitat té la llengua pròpia, més benestar i més salut tenen els seus parlants. Aquesta seria una de les conclusions de les 30es Jornades internacionals Linguapax sobre la "Diversitat lingüística al món", del dia 23 de novembre, ...

Liburuak eta argitalpenak¹

[Joseba Intxausti historialari eta euskaltzalearen obra osoa sarean](#)

(Jakin) Jakin Taldeak Joseba Intxausti historialari eta euskaltzalearen obra osoa digitalizatu du. Guztira, Intxaustik sei hamarkadez argitaratutako 504 dokumentu eta 11.684 orrialde sareratu dira, ekimenaren aurkezpenean azaldu dutenez. Joseba Intxausti Rekondo (193...

[Hizkuntza-proiektua garatzeko gida praktikoa aurkeztuko du Sortzenek abenduaren 2an](#)

(Naiz) Sortzen elkarteak, «ikasle euskaldun eleaniztunak» hezi asmoz, Hizkuntza-Proiektua garatzeko gida praktikoa aurkeztuko du, abenduaren 2an Bizkaiko Dima herrian egingo duten ekitaldian. 'EskolHerrianEuskaraz' izena izango du gidak.

[Joxe Manuel Odriozola: "Nora goaz euskalduntasun honekin?"](#)

(Elkar) Joxe Manuel Odriozolak Nora goaz euskalduntasun honekin? (Elkar) liburua kaleratu berri du. Hizkuntza, kultura, identitatea, nazioa, elebitasuna eta kultura-bitasuna, diglosia, ideologia, hegemonía, folklorizazioa... hainbat kontzeptu jorratzen ditu Odrio...

Treballs de Sociolingüística Catalana aldizkaria (27): La transmissió lingüística intergeneracional

(TSC) Belaunaldi arteko hizkuntza-transmisioari buruzko zenbaki monografikoa. Besteak beste Paula Kasaresen artikulua jasotzen du.

¹Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelakoak

Larretik Noranahi: UZEIren ibilbideari buruzko dokumentala

(UZEI) Euskarari bide egitea, hori izan da UZEIren asmoa eta egitekoa sortu zenetik bertatik. Eta ahalegin horretan 40 urte beteko ditugu laster: bidean geldialditxo bat egin, eta atzera begiratzeko baliatu nahi dugu aukera hori. Azaroaren 27an omenaldi-ekitaldi bat ...

Ibon Sarasola euskaltzain eta hizkuntzalari donostiarrek jasoko du 2017ko Abbadia Saria

(Gipuzkoa.eus) Abbadia sariko epaimahaiak, tentuz aztertu ondoren bide ezberdinetatik proposatutako hautagaiak, aho batez proposatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari 2017ko Abbadia saria ematea Ibon Sarasola (Donostia, 1946) euskaltzain eta hizkuntzalariari. Epaimahaiak...

Euskararen normalizazioan aurrerapausoak egiteko 13 neurri proposatu ditu EHEk

(Argia) Euskal Herriko eremu administratibo guztietan euskara “mendeko egoeran kateatua, euskaldunon eskubideak urratu eta nagusiki, euskararen berreskurapena eta normalizazioa ahalik eta gehien oztopatzeko helburua” duten arauak daude indarrean, EHEk salatu duenez. EAEn...

Euskaraldia aurkeztu da, hizkuntza ohituretan eragiteko ekimena

Bilbon aurkeztu da Euskaraldia, Arriaga Antzokian izan den prentsaurrekoan. Hizkuntza ohituretan eragin eta euskararen erabilera areagotzeko ekimenaren aurkezpenean parte hartu dute Euskaraldiaren sustatzaile diren 27 entitate eta erakundeetako ordezkariak.



BABESLEA



BAZKIDE PARTAIDEA

